LARRABETZU UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

E.E.- 2026-00312

ALKATETZA DEKRETU

OINARRIA: 2026ko bagilaren 26an eta sarrera erregistro nagusiko E202602470 zenbakiagaz, Intxurreta Jai Batzordeak Larrabetzuko Udaleko 2026ko Aurrekontu Orokorrean modu nominatiboan zehaztutako diru-laguntzaren eskaria egin zuen. Diru-laguntzaren zenbatekoA 35.000,00 eurokoa da.

OINARRIA: 2025eko otsailaren 14an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2025 ekitaldi ekonomikorako Udal aurrekontuaren behin betiko onarpena argitaratu zen eta horretan Intxurreta Jai Batzordea Elkarteari diru-laguntza nominatiboa agertzen da 338.48002 aurrekontu partidan. Partida horretan 40.000,00 euroko kreditua dago.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 22 eta 28. artikuluetan, Lege hori garatzen duen araudia onartu zuen 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan eta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera, honako hau EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Intxurreta Jai Batzordea Elkarteari 338.48002 aurrekontu partidaren pentsuan 40.000,00 euroko diru-laguntza ematea, ebazpen honetan zehaztutakoari jarraituz:

- Diru-laguntzaren objektua: Hurrengo udal jaiak antolatzea: Andra Mari (abuztuak 12, 13, 14, 15 eta 16), Goikoeleixaldeko jaiak (abuztuak 30 eta 31 eta irailak 1).
- Aurrekontu kreditua: 40.000,00 euro, udal aurrekontuko 338.48002 aurrekontu partidaren pentsuetan.
- Xede berdinarekin lortzen diren diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edota baliabideekin bateragarria izango da, horiek bestelako Administrazio Publikoetatik datozela edo beste erakunde publiko edo pribatutik datozela kontuan izan gabe. Justifikazioarekin batera bestelako diru-sarrerak lortu izanaren inguruko akreditazioa egin beharko da.
- Diru-laguntza ebazpen hau ematearekin %70a ordainduko da eta geratzen den %30a justifikazioa egin eta gero ordainduko da.
- Diru-laguntza justifikatzeko epea 2027ko zezeilaren 26an bukatu egiten da. Justifikazioa lege aplikagarriak zehaztutako moduan egingo da.

BIGARRENA.- Ebazpen honen berri udal diru-zaintzari eman diru-laguntzaren ordainketa egin dezan.

HIRUGARRENA.- Dekretu hau interesdunari jakinarazoko jako.

LARRABETZU
UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

LAUGARRENA.- Udalbatzako Osoko Bilkureak egingo dauan hurrengo bileran Dekretu honen barri emongo da.

Ebazpen honek **administrazio-bidea amaitzen du**. *Horren aurka, aukerako izaeraz,* **berraztertze-errekurtsoa** *aurkez daiteke ebazpena eman duen* **Alkatearen** *aurrean,* **hilabeteko epean**, *ebazpenaren* **jakinarazpena** *egin eta* **hurrengo egunetik** *aurrera zenbatuta,* **Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen** *123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.*

Bestela, **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** *aurkez daiteke* **Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena** *egin eta* **hurrengo egunetik** *aurrera zenbatuta,* **Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen** *8. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.*

Hori guztia, interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkezteko duen eskubideari kalterik egin gabe.